

KUDEAKETAKO BERDINTASUNERAKO JARDUNBIDE EGOKIAK JASOTZEKO GALDETEGIA

BERDINTASUNAREN KUDEKETA ARLOKO PRAKTIKAREN IZENBURUA: Martxoaren 8ko kanpaina: “NOSOTRAS PODEMOS, NOSOTRAS CONTAMOS” / “GU ERE BALIO ETSI”.

BILATZEN DITUEN HELBURUAK:

1. helburua: lantegi Batuak-en desgaitasun intelektuala duten emakumeen lan-lorpenak ikusaraztea, batez ere postu maskulinizatueta edo teknologizatueta.
2. helburua: lantegi Batuak-en desgaitasuna duten emakumeen artean erreferenteak sortzea.
3. helburua: sentsibilizatzea, genero-estereotipo eta -rol tradizionalak ezabatzen laguntzeko.

ENTITATE ARDURADUNA: Lantegi Batuak

EMAKUMEZKO LANGILEEN KOPURUA: 1160 **Guztiraren gaineko portzentajea:** 37%

GIZONEZKO LANGILEEN KOPURUA: 1977 **Guztiraren gaineko portzentajea:** 63%

WEBGUNEA: <https://www.lantegibatuak.eus>

JARDUNBIDE EGOKIAN PARTE HARTZEN DUTEN BESTE ENTITATE BATZUK: -

HASIERA DATA: 2022ko otsaila

HARREMANETARAKO PERTSONA: Ziortza Rekakoetxea Petralanda

HARREMANETARAKO TELEFONOA: 94.453.59.99

HARREMANETARAKO E-MAILA: ziortzarekakoetxea@lantegibatuak.eus

HITZ GAKOAK: Praktikak harreman handien duen 5 kontzeptuak hurrengoak dira:			
	Estrategia		Enplegarritasuna
X	Pertsonak	X	Maskulinitutako Sektorea
	Aliantzak		Lanaldiaren murrizketa
	Hornitzaileak		Baimenak
	Gizarte Erantzukizun Korporatiboa		Amatasuna eta aitatasuna
	Erakunde Eredua		Kontziliazioa
	Zeharkakoa		Telelana
	Kualitatibo eta kuantitatiboa		Denboraren eta espazioaren antolamendua
	Kudeaketa Sistemakoa, metologia edo prozesua		Erantzunkidetasuna
	Diagnostikoa		Zaintzak eta bizitzaren iraunkortasuna
X	Berdintasunerako plana		Segurtasuna, Osasuna eta Ongizatea

	Ikerketak eta genero analisiak		Bezeroentzako/erabiltzaileentzako arreta
	Estrategian Integrazio		Sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako protokoloa
	Genero ikuspegia txertatzea/mainstreaminga		Lan baldintzak
	Feminizidioa		Ordainsari- politika
	Genero-indarkeria		Sailkapen profesionala
	Jazarpen-puntu beltza		Kristalezko sabaia
	Arriskuaren aurreikustea		Parekidetasuna
	Barne komunikazioa		Lidergoa
	Kanpoko Komunikazio		Interseksionalitatea, Aniztasuna
	Komunikazio ez-sexista		Genero-ikuspegia
	Gardentasuna		Emakume erreferenteen ikustaratztea
	Publizitatea		Autodefentsa feminista
X	Nazioarteko egunak: kanpaina 22F, 8M, 25A		Ahalduntzea
X	Formazioa eta Sensibilizazioa		LGTBIQ+ politikak
	STEAM		Berdintasunezko maskulinitateak
	Mentoretza		Emakume migratzaileak
	Barne Promozioa		Gizarte Esku-hartzea

DESKRIBAPENA: Lantegi Batuak erakundearen III. Berdintasun Planean jaso da emakumeen eta gizonen berdintasunak erakundearen barruan eta kanpoan duen balioari buruz sentsibilizatzeke helburua. Aterki horren azpian, urtero sentsibilizazio-kanpaina bat egiten dugu Emakumeen Nazioarteko Eguna (8M) dela-eta, besteak beste helburu horri erantzuna emateko.

2022an, Lantegi Batuak erakundeko adimen-desgaitasuna duten emakume langileak kanpainako protagonistak izatea aukeratu dugu, zuzeneko lekukotzen bidez: zein lan-lorpen lortu dituzten urte hauetan, zein zailtasun gainditu dituzten, zein hobekuntza lortu dituzten, nola eboluzionatu duten eta maila profesionalean zer ikasi duten.

Goian azaldutako helburuekin, Lantegi Batuak erakundeko zenbait arlo (Berdintasuna, Garapen Soziolaborala, Komunikazioa, Lan Harremanak eta Kudeatzailtza) lantaldean eta zeharka landu ditugu, "Nosotras podemos, nosotras contamos / Gu ere balioetsi" kanpaina sortzeko.

Kanpainaren elementu nagusia hamabi bideo izan dira, hamabi protagonistarekin, eta aurreko lekukotzen zati bat laburbiltzen duen bideoa. Elementu horien inguruan, hiru kartel sortu dira (gaztelaniaz, euskaraz eta elebiduna), kanpainaren zabalkundea egiteko. Zabalkunde hori gure barne-baliabideen bidez (Intralana, informazio-etaulak, LanHotsa aldizkaria) nahiz kanpoko baliabideen (sare sozialak, bloga) bidez egin da.

ALDERDI BERRITZAILEAK: Aurkezten dugun proiektuaren faktore berritzailetako bat da arreta jartzea ez kanpoko erreferente ezagunetan, eragin positiboa izan badezakete ere Lantegi Batuak erakundearen lan egiten duten pertsonengan, baizik eta plantillako langileen berengan. Horrela, erabaki dugu adimen-desgaitasuna duten emakumeak izatea kanpainako protagonistak, beren gaikuntza-prozesuen edo enplegarritasun-hobekuntzarako beren prozesuen protagonista diren modu berean. Gainera, azpimarratu nahi izan dugu tradizioz maskulinizatutako lanpostuetan egiten duten lana (industria-sektoreko emakume operarioak) edo teknologizazio-maila handiarekin egiten dutena (garbiketaren sektoreko emakume langilea).

Beste alderdi berritzaile bat izan da plataforma digital oso eskuragarriak erabiltzea, hala nola Youtube, azpigituluekin, zeinu-hizkuntzarekin eta irakurketa errazarekin, mezu guztiak pertsona guztientzat eskuragarri jartzeko.

EMAITZAK (inpaktu positiboak edo ondorio negatiboen murrizketa): Kanpaina honen inpaktu positiboa izan da hasieratik proposatutako helburuak bete direla.

- Adimen-desgaitasuna duten emakume langileek beren lorpen profesionalak eta laneko aurrerapena bistaratzea lortu dute.
- Adimen-desgaitasuna duten emakume langileak nor bere mugak gainditzeko adibide eta erreferente gisa agertu dira.
- Aurrera egin dugu estereotipoak eta rolak ezabatzen, eta ez bakarrik genero-estereotipoak: desgaitasunari esleitutakoak ere bai.

KUDEAKETAN INTEGRATUA: Lehen aipatu da jarduera hau Lantegi Batuak erakundearen III. Berdintasun Planaren (2021-2022) barruan dagoela; hain zuzen ere, “Emakumeen eta gizonen berdintasunaren balioaren garapena” izeneko 2. ardatzean. Praktika hori bat dator 2.1 helburuarekin: “emakumeen eta gizonen berdintasunak erakundearen barruan eta kanpoan duen balioari buruz sentsibilizatzea”. Eta, helburu horren esparruan, 2.1.3 ekintzarekin: “Barne-kanpainak egitea martxoaren 8an eta azaroaren 25ean”. Era berean, ekintza Berdintasun Planaren 3. ardatzean (“emakumeen ahalduntzea”) ere txertatuta dago.

Bestela esanda, helburu hauek lortu nahi ditugu ardatz horien esparruan garatutako ekintzen bidez: langileak genero-berdintasunari buruz sentsibilizatzea eta desgaitasuna duten emakume langileen gaitasuna eta kompetentziak bistaratzea. Ekintza horien helburua, halaber, desgaitasuna duten emakumeei ahotsa ematea da, beren prozesuaren protagonista izan daitezen.

Lan-aukera berriak sortzea eta desgaitasuna duten pertsonen garapen soziolaborala funtsezko helburuak dira Lantegi Batuak Fundazioaren estrategian; beraz, esan dezakegu erakundearen politikarekin ere bat datorrela ekintza hau, gure Plan Estrategikoan txertatzen baita. Estrategia genero-ikuspegiarekin martxan jartzean, gainera, lortu dugu desgaitasuna duten emakumeen ahalduntzea eta haien enplegurako motibazioa handitzea.

ERAGINKORRA: Adierazi den bezala, Lantegi Batuak erakundeko hainbat arlok hartu dute parte proiektuan: Lan Harremanak, Berdintasuna, Garapen Soziolaborala, Komunikazioa, industria-arloa eta zerbitzu-arloa.

Kanpainako parte-hartzaileak adimen-desgaitasuna duten 12 emakume izan dira, Lantegi Batuak erakundearen batez ere industria-arloan lan egiten dutenak, bai zerbitzu okupazionalen bai enplegu-zentro berezian.

Material hauek erabili dira:

- Parte-hartzaileekin grabatutako bideoak –azpituludunak–, eta, laburpen-bideoaren kasuan, zeinu-hizkuntza ere gehitu da.
- Kartelak gaztelaniaz, euskaraz eta elebidunak dira.
- Intralan-en gune berezi bat sortzea kanpaina txertatzeko.

Material horiekin batera, bestelako informazio- eta zabalkunde-elementu batzuk ere erabili dira:

- Zuzendaritza Nagusiak egindako informazio-zirkularra, irakurketa errazean, bai gaztelaniaz bai euskaraz.
- “Ehuneko ehun gai” blogeko sarrera espezifikoak.
- Albistea LanHotsa aldizkarian
- Argitalpenak gure sare sozial guztietan

Kanpaina osoa giza baliabide, baliabide material eta finantza-baliabide propioekin egin da.

PARTE-HARTZEA ETA PRAKTIKAREN IRISMENA: Praktikak erakundeko langileen parte-hartzea du, kanpainako protagonistak nahiz proiektu osoa kudeatu, diseinatu eta zabaldu duten pertsonen Lantegi Batuak erakundeko langileak baitira.

Uste dugu praktika Lantegi Batuak erakunderen kudeaketan integratuta dagoela eta erakundearen berdintasunaren kudeaketa lantzen dugun moduaren adibide bat dela: erabat zeharkakoa eta ahalik eta arlo eta pertsona gehien inplikaturik.

DOKUMENTATUA: Praktika dokumentatuta geratu da, ez soilik oso elementu bisualak (bideoak, kartelak, artikulak, aldizkariak) osatuta dagoelako, baizik eta produktu guztia eta haren zabalkundeak gordeta geratu direlako eta sare sozialetako mezuen pantaila-argazkiak ere egin direlako, ekintza egiaztatzen eta justifikatzen laguntzeko.

ARRAKASTA-FAKTOREAK: Praktikaren arrakastaren faktore nagusia izan da Lantegi Batuak erakundeko adimen-desgaitasuna duten emakumeak zuzenean eta protagonista gisa inplikatzeko. Desgaitasuna dutenei lan-aukerak eskaintzen dizkien erakunde gisa, gure helburuak dira, besteak beste, pertsonen autoestimua, autonomia eta autodeterminazioa sustatzea, haien ahotsi protagonismoa emanez. Hau da, pertsona horiek beren prozesuaren protagonista izatea enplegarritasuna hobetzeko eta enplegua lortzeko. Erakundearen barnean erreferenteak sortzea, haien lorpen profesionalak bistaratzeko eta gaingidutako zailtasunaz jabetzea ere izan dira, bai

Lantegi Batuak erakundeko langile guztientzat eta bai kanporako gure hedabideen bidez kanpainaren berri izan duten guztientzat.

Inplikaturako arlo guztien laguntza eta lana eta zeharkako ikuspegia izan dira, zalantzarik gabe, kanpainaren arrakastan lagundu duten beste elementuetako batzuk. Halaber, kanpainan kontuan hartu dira parte-hartzaile guztien ekarpenak; izan ere, parte-hartzaileek lantaldean lan egin dute eta denborak ondo planifikatu dituzte.

TRANSFERIGARRITASUNA: Praktika hau egokitu ahal izango da desgaitasuna dutenekin lan egiten duten beste erakunde batzuetarako, baina baita bestelako erakunde batzuetarako ere, emakumeen lana nabarmentzea –erakundeko langileei berei ahotsa emanez– edozein lan-inguruetan erreplikagarria baita. Proiektua beste erakunde batzuei ere transferi dakieke, baldin eta emakumeen ordezkari txikia badago eta/edo lanaren bereizketa horizontala badago. Era berean, gizarte-bazterketa egoeran edo arriskuan daudenen enplegarritasuna hobetzen lan egiten duten –edo, bereziki, halako egoeretan dauden emakumeekin (kualifikazio baxuko emakumeak, indarkeria matxistaren biktima direnak, etab.) lan egiten duten– beste enpresa edo erakunde batzuek praktika hau erreplika dezakete.

IKASKUNTZA: Kanpaina hau prestatzean, ikasi dugu garrantzitsua dela desgaitasuna dutenei protagonismoa ematen jarraitzea; eta, kasu honetan, adimen-desgaitasuna duten emakumeei. Gogoan izan dugu, halaber, pertsona guztiak inplikaturaz lan egiten denean –ekarpen, iritzi edo desadostasun guztiak kontuan hartuta–, emaitza arrakastatsua izaten dela.